

AURREZ AURREKO ITZULERA SEGURUA ETA ADOSTUA EXIJITZEN DUGU

STEILAS premia pedagogikoei erantzungo dien aurrez aurreko hezkuntzaren aldekoa da, zalantzarik gabe, ikasle guztiak eta, bereziki, egoera ahulenean daudenak babesteko. Hezkuntza gizartearentzako kohesio-tresna delako.

Hala ere, argi dago egoera epidemiologiko kezkaragarrian gaudela, eta, beraz, ezinbestekoa da neurri eraginkorrak planifikatzea, aurrez aurreko itzulera segurua bermatzeko eta hori posible egiteko baliabideak jartzea.

STEILASek zentro pribatuetao titularrei eskatzen die langileen ordezkari legalekin (ordezkariekin edo enpresa-batzordeekin) enpresa bakoitzeko kontingentzia-planak adostu ditzatela, langile guztien osasuna bermatzeko beharrezko neurriak barne hartuta. Ikastetxe askotan, plan horiek aurreko ikasturtearen amaieran jarri ziren martxan, baina oso garrantzitsua da ikasle guztiak ikastetxeetara joango diren egungo egoerara egokitzea, COVID19 kutsatzeko arriskua askoz handiagoa baita, bai ikasleentzat, bai langileentzat. Era berean, garrantzitsua da gogoratzea enpresak jarri behar dituela baliabide guztiak bere plantillaren osasuna babesteko, norberaren babeserako materiala barne, hala nola maskarak, gela, pantailak....

Bestalde, COVID-19 gaixotasunarekiko bereziki sentikortzat hartzen dira, baja-partearen balizko ondorioetarako,, patologia kardiobaskularrak, arteria-hipertentsioa, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoa, immunoeskasiak, tratamendu aktiboan dauden prozesu onkologikoak, haurdun dauden emakumeak eta 60 urtetik gorako pertsonak.

Pertsona horiek ezin badute telelana egin, ezta beren lanpostua egokitu ere kutsatzeko arriskua murrizteko, enpresek, laneko arriskuaren prebentzio-zerbitzuen bidez, bereziki sentikorrek diren langileen presentzia ebaluatuko dute, eta prebentzio-, egokitzapen- eta babes-neurrirei buruzko txosten bat egingo dute, haien osasun-egoeraren arriskua areagotzen duten baldintzen berri emanez.

Txosten horrek aldi baterako ezintasunaren adierazpena egiaztatuta uzteko balioko du, lehen mailako arretako zerbitzuei hura izapidetzen laguntzeko, eta lan-istripuarekin parekatutako egoera bat kontsideratuko da prestazio ekonomikorako.

Ikastetxe askotan, LTE(ERTE) bat aplikatu diete ezinbestean haur-hezkuntzako lehen zikloko langileei, AZPri eta hezkuntza-laguntzako espezialistei. LTEtik ateratzean, langile horiek lehengo lan-baldintzei eusten diete. Bukaera-data duen behin-behineko kontratu bat izanez gero, epe hori luzatu egin behar da, aldi baterako LET egoeran egon den beste egun. Oro har, enpresak 6 hilabetez eutsi behar dio enpleguari, eta ezin du inor kaleratu, arrazoi gisa COVID19 alegatuta.

Lana eta familia uztartzeari dagokionez, indarrean dago, gutxienez irailaren 22ra arte, lanaldia egokitzeko eta/edo lanaldia %100era murrizteko aukera, langileak odolkidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko betebeharrak egiaztatzen baditu, COVID-19 delakoaren ondorio zuzen gisa. Era berean, COVID-19rekin zerikusia duten gobernu-agintariak hartutako erabakiak daudenean, baldin eta erabaki horiek ikastetxeak ixtea badakarte, edo, edo, arreta eta zaintzak behar dituen pertsonari ematera behartzen duen beste edozein erabaki. Baita zaintzaz edo zuzeneko asistentziaz arduratu den pertsonak, COVID-19 delakoarekin zerikusia duten arrazoiengatik, hori egiten jarraitu ezin duenean ere.